

Donostia, 2018ko ekainaren 15a

IDAZKARI NAGUSIARI

HIRIKO AGUR ZIBILEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean agur zibilei buruz bideratutako interpelazioaren ondorio da.

AZALPENA

Duela urtebete baino gehiago, Irabazi Donostia taldeak hala eskatuta, mozio hau onartu zen Osoko Bilkuran:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hiru hilabetean hirian agur zibilak egiteko presta daitezkeen guneen zerrenda bat egiteko.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio instalazio horiek erabiltzeko gida bat egiteko, herritarrek agur zibilak egiteko lekuak izan ditzaten.

Mozioan, adierazi dugunez, agur zibilak egiteko presta daitezkeen lekuen zerrenda bat egiteko eskatzen zitzaion EAJ/PSEren gobernuari. Presidentetzako zinegotzi Juan Ramon Viles jaunak, horri buruz galdetu ziotenean, gai horretan aurrerapenik ez zela egin esan zuen, eta, hortaz, agur zibilak egiteko lekuen zerrenda eta instalazio horiek erabiltzeko gida egin gabe zeudela.

Irabazi Donostian, ezinbestekotzat jotzen dugu zeremonia zibilak egiteko lekuak prestatzea, gizartearen premia horri erantzute aldera. Izan ere, gobernu taldeak berak bere gobernatzeko programan onartu zuen behar hori. EAJk eta PSEk beren gobernatzeko programan esan zuten donostiarrentzako zerbitzu berriak sortuko zituztela udalaren hainbat espaziori erabilera berriak

emanen, adibidez, Donostiako bizilagunen hiletatan ekitaldi ez-erlijiosoak Aieteko Jauregian egin ahal izango zirela.

Hala ere, irisgarritasun arazoak direla medio Aiete alde batera utzita, gobernuak ez du alternatibarik bilatu.

Beharrezkoa da konponbideak bilatzea; izan ere, legealdian zehar hainbat ekimen aurkeztu badira ere, ez da horri buruzko alternatibarik proposatu. Hiru hilabeteen gobernu taldeak helburu horretarako laga zitezkeen instalazio publikoen zerrenda egingo zuela eta lagapen horiek arautuko zituela adostu arren, duela lau urte bezala jarraitzen dugu. Erlijio konfesio guztiek beren liturgia ekitaldiak egiteko lekuak dituzte, eta, beraz, beharrezkoa da Udalak gizartearen premia horri erantzutea.

Estatu akonfesional eta laiko batean, erakundeak pertsonen eta komunitateen ideologia, erlijio eta kultu askatasuna bermatu behar dute. Hildakoen hileta edo omenaldi zibilak ere egiten dira, herritarrei beren bizitza ulertzeko modua errespetatzen duen zeremonia duin eta pertsonal bat emateko gizarte premia dagoelako.

Are gehiago, ondo dakizuenez, gure inguruko zenbait udalerrik ekitaldi horietarako berezko ordenantza bat egin dute, baita haiek egiteko lekuek prestatu ere.

Hori guztia dela eta, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio 2017ko maiatzeko Osoko Bilkuran egindako akordioa betetzeko, hiru hilabeteen agur zibiletarako guneen zerrenda eta instalazio horien erabilera lagapenaren erregulazioa aurkezteko.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea.